

# Noaqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1999ko urtarrilaren 29 IV. urtea

Usurbil, 59. Zenbakia



***Herri bizitza  
berreskuratu  
nahian***



## Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Pakita Olasagasti!** Urtarrilaren 29an urteak egiten dituzunez hemen gatoz zoriontzera. Ea katarro zahar hori lehenbailehen joaten zaitzun. Etxekoak.



Otsailaren 5an beteko ditu urteak **Satur Azpiroz**ek. Praxkuren familiaren partez, zorionak eta urte askotan! Ondo pasa eguna.



Zorionak **Itziar Aizpurua!** Otsailaren 6an 48 urte betetzen ditu kale nagusiko "rubia despanpananteak". Zorionak eta muxu haundi bat. Admiradore sekretua.



Zorionak **Amagoia!** Urtarrilaren 27an bizitzaren 2. pisura igo hitzen eta hori txanpain botila batekin ospatu beharra zagon. Badakin, gu betiko lekuan egongo gaitun zain "harrizian" baina puntual etorri. Koadrila.



**Uxo Etxarri Errekondo.** Urtarrilaren 15ean izan zen zure urtebetetze eguna. Muxu haundi bana Maider, Lur, Oihan, Antton eta Aioraren partetik



Zorionak **Ana!** 31 badituzu ja. Argazkian baino txukunxeago ospatu beharko den. Familiakoak.



Zorionak **Garbiñe!** Urtarrilaren 28an 65 urte beteko dituzu. ea ba ondo pasatzen duzun. Muxu haundi bat. Familiakoak.



57. urte horren karga jasan beharko duzu hemendik aurrera **Joxe Antonio.** Badakizu otsailaren 7an zer tokatzen den ezta? Etxekoak.




Zorionak **Aitzol eta Iñaki Torregarai.** Egun on bat pasa dezazuela biok zuen urtebetetze egunean. Familiaren partez.



Zorionak **Irati!** Urtarrilaren 24an 9 urte bete zenituen eta egun ona pasa genuen elkarrekin. Jarrai horrela gupetona. Etxekoak



Gure etxeko txikia haundia egiten ari zaigu. Zorionak **Irati** zure 12. urtebetetzean. Muxu haundi bat. Etxekoak



Zorionak **Joxe eta Iñaki Zumeta** anaiei. etxeko zaharrenak 66 urte eta txikiak 46. Urte mordokka bete badituzue ere sasoi jarraitzen duzue. Txokoaldeko haizeak zerikusirik izango ote du hortan? Zorionak familiakoen partez.

Norbaitek familiak, lagunak, aldamenekoak, ezkonberriak... zoriondu nahi baditu hemen du dohainik zoriontzeko aukera. Argazki bat eta testuan jarri nahi dena besterik ez duzu behar.

**Hurrengo alea: urtarrilaren 29a Agurrak ekartzeko epea: urtarrilaren 22a**

## Jaiotzak

**Unai Udabe Maiz**  
(1999-01-04)  
Kalezar

**Olatz Askorreta Basterrika**  
(1999-01-12)  
Zubieta

## Hildakoak



1999-01-08  
**Raul Lisner Morejon**  
63 urte  
Olarriondo

1999-01-08  
**Inazio Iribar Mujika**  
87 urte  
Aginaga

**Bai, esan?**

- |                         |          |                            |          |
|-------------------------|----------|----------------------------|----------|
| • Udala                 | 37 19 51 | • Taxi geltokia            | 36 21 78 |
| • Udaltzaingoa          | 36 11 12 | • D.Y.A.                   | 46 46 22 |
| • Anbulategia           | 36 20 13 | • Gurutze Gorria           | 27 22 22 |
| • Udarregi ikastola     | 36 12 16 | • Gure Pakea egoitza       | 37 32 28 |
| • Agerialde ikastetxea  | 36 38 95 | • Gure Elkarte egoitza     | 37 17 51 |
| • Oiardo kiroldegia     | 37 24 98 | • Arrate egoitza           | 36 63 40 |
| • Zumarte musika eskola | 37 15 94 | • Eusko Tren informazioa   | 47 09 76 |
| • Etumeta euskaldegia   | 37 20 01 | • <b>Noaua!</b> aldizkaria | 36 03 21 |

# Zer irizten?

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkarte  
Kale Nagusia, 37  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21  
E-mail: noaua@topagunea.jalgi.com

Web orria:  
<http://www.jalgi.com.topagunea/noaua/>

**Zuzendaria**

Olatz Altuna

**Kazetariak**

Josu Aranberri, Amagoia Mujika eta  
Agurtzane Solaberrieta

**Kolaboratzaileak**

Pedro Mari Matxain, Ines Kamino, Leire  
Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain,  
Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako  
Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiris-  
tain, Zaloa Arnaiz, Maribi Arrospide,  
Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pelleje-  
ro, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Olatz  
Leoz, Mikel Bengoetxea, Agustin Esna-  
ola, Izaskun Zubiria, Olatz Goenaga,  
Izaro Aizpurua, Joxe Loidi, Begoña Arri-  
aga, Urko Manterola, Eneko Harreguy,  
Karme Urdanpilleta, Joseba Zubel-  
dia, Imanol Goenaga, Joxe Torregaray  
eta Arantxa Irazustabarrena.

**Administrazioa**

Aranxa Usarralde, Aitor Pikabea eta  
Nerea Kamino.

**Erredakzio Kontseilua:**

Olatz Altuna, Idoia Torregarai, Josu  
Aranberri, Ainhoa Azpiroz, Amagoia  
Mujika, Agurtzane Solaberrieta eta  
Inaxio Usarralde.

**Maketazioa eta diseinua**

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz  
Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

**Dokumentazioa**

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua eta  
Nagore Gonzalez

**Informatika**

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

**Banaketa**

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo  
Vidal eta Iker Muguruza

**Elektrikaria**

Iñaki Salsamendi

**Tirada:** 2.300 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818

**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamabostekariak ez du  
bere gain hartzen aldizkarian adierazi-  
tako esanen eta iritzien erantzunkizu-  
nik.

**Noaua! Kultur Elkarte**  
**jendaurreko ordutegia:**  
**16.30-18.30 astegunetan**



## Sagardoa

**Jakoba Errekondo**

**Sagardo egunaren lagunak-eko kidea**

**G**urekin lotua dagoen edoze-  
rren moduan, sagardoa  
galtzara eder eta bidezidor  
kaskarretatik eraman dugu euskal-  
dunok historian zehar.

### SAGARDOA, GARAI BATEAN

Usurbilen, sagardoa eta pitarra  
oinarriko edariak izan ziren mende  
honen hasiera arte. Garai hartan  
sagardoa babestu eta sustatzeko  
araudi zorrotzak ezarriak ziren. Taber-  
na gehienak sagardotegiak ziren.  
Berezko aparteko botila ere eduki  
zuen gure sagardoak garai hartan.

Gero ordu arte luxuzko edaria zen  
ardoak sagardoari azpia jan eta  
gure mahai eta barrez nagusitu zen.  
Arrazoiak bat baino gehiago izan  
ziren: sagardoa baserriarren edaria  
zen, ardo kaletarrena eta apaize-  
na, hau da sona handikoena; indus-  
triaren eraginez, baserriak gero eta  
garrantzi gutxiago du; sagarra ikara-  
garri izan zen urte batzuetan prezio-  
ak lur jo zuen, eta, zozoarentzat giza-  
kiak ikuitutako arrautza bezelaxe,  
sagastiak gorrotogai bihurtu ziren.  
Sagarrondo artean ere pinuak lan-  
datu ziren. Euskal Herriko sagardo-  
arantzako sasoi beltza hasi zen.  
Sagardotegi gehienak itxi egin ziren,  
eta baserri eta anaiarteetako egos-  
kor gutxi batzuen ohitura izatera arte  
zokoratu zen sagardoa.

### SAGARDOA, GAUR EGUN

Egoskor horiei esker, duela hogeita  
bost bat urte, euskaldun jatortzat  
jotzen ziren ohituren berrindartzeare-  
kin batera, txotx-garaiaren sagardo-  
probatzera joatea zabaltzen hasi  
zen. Horra hor sagardotegien pago-  
txa. Jatena bertan eskeintzen dute

eta, zeharka behinik, sagardoa erren-  
tagarria da. Gaur egun, negozio des-  
berdin askok dute sagardotegi  
izena, pagotxa horren adierazgarri.

### SAGARDOA ETORKIZUNEAN

Sagardoak etorkizun oparoa duela  
ezin uka. Azti ibili beharra dago,  
ordea. Urrutira gabe, txakolinarekin  
egin den lan hasarrea hor dago.  
Hona hemen, nire uste apalean,  
jorratu beharreko bideak:

Sagardoaren sona haundituko  
duten ekintzak sustatzea.

Sagardotegia izena, hala direnek  
bakarrik erabiltzera mugatu behar  
da.

Sagardoa urte guztiko edari gisa  
bultzatzea. Honetarako urte osoan  
kalitate oneko sagardoa eskeini  
behar da.

Sagardogileek ikerketa bultzatu  
behar dute. Mentu-oin eta barietate  
egokienak, kalitatea hobetzeko sis-  
temak, etab.

Sagarraren kalitatea hobetzeko  
baserriarrek elkarlanean hastea.

Taberna eta jatetxeetan sagardo  
bat baino gehiago egotea ona da,  
bezeroak kalitatea eskertu eta  
ordaintzen du. Prezio desberdinetako  
sagardoak, zergatik ez?

Bukatzeko, Usurbilgo tabernariei  
proposamen bat. Sagardo bakar  
bat eduki beharrean jarri aukeran  
herriko sagardotegi guztietako  
sagardoak eta jendeak bakoitzaren  
gustuaren arabera aukeratuko du.  
Eta, ahaztu gabe, ateratzeko ga-  
raian tenperatura egokia da garran-  
tzitsuena; 10 bat gradu, alegia.



Usurbilgo Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Euskal presoak



Euskal Herra!

**Azala: Zubietako kaxkoa.**  
**Lasartetik Zubietara doan**  
**bidea.**

## Anbulatorioko sarrera hobetu beharko lukete

Bospasei urte pasa dira anbulatorio berria egin zutenetik. Gaixoak sendagilearengana... jendearen joan etorria etengabea da egunero eguerdi bitartean. Horrenbeste jende ibiltzen den lekuari, ordea, sarrera gaizki jarri diote.

Erreabilitazioa egitera egunero ambulanzian eramaten naute Donostiara. Itzuleran, gehienetan etxe aurrea izaten da nire geltokia, baina bi kasutan Usurbilgo ambulategira eramanez ninduten. Bertako atean uztea zen ambulanziko gidariaren asmoa, ate batetik atera eta bestean sartu. Bai zera! Ambulanziek ezin dute gaixoa anbulatorioko atean utzi, ez baitago bertara hurbiltzeko lekurik. Horregatik, ambulanzia aparkalekuan gelditu eta ohatila batean eramanez ninduten barrura.

Anbulategia berria izanda, ez dakit nola ez duten ambulanzientzat sarrera edo bide bat jarri. Anbulatoriara eramanez behar nindutela izan da nire kasua, baina larrialdi batean gaixoren bat ambulategitik eritetxera eramanez behar badute? Besoetan eramanez behar al dute aparkalekuraino? Nire ustez, ibilgailuek ateraino joateko aukera izan behar dute.

Honekin batera, oinezkoentzat jarri duten sarrera egokiena ez dela ere esan nahi nuke. Aiton-amonek gorriak ikusten dituzte ambulategira joaterakoan. Alde batetik, aparkalekua harriz betea dago eta euria egiten duene-



an egoera ez da nahi bezain ona. Beste aldetik, jardinez inguratutako bide estua polita izango da, baina euria egiten duenean bustitzeaz gain, lokatza ere egoten da, oso irristakorra bihurtuz.

**Nerea Urkiola**

Irakurle, kexarik baduzu, herritarrei zerbaitez esan nahi badiezu tarte hau da zuretzat aproposa. Ahal honetako gutunak ezinez sinatu daitezkeen arrez Noaua!k beti jakin behar du nori idatzi duen. Gutunak Noaua!k bidali edo bertako buzoian utzi. Eskutitzak orrialde erdikoak izan behar dute, 1200 karaktere ingurukoak.

**T**xirrikitutik



*Gaur egungo umeek gero eta zentzumen gehiago lantzen dituzte. Argazkia ikusi besterik ez dago. San Sebastian bezperan Udarregi ikastolan egin zuten danborradan, txapelak begia tapatuta ere ederki jo zuten danborra. Argazkikoa ez zen bakarra izan, batek baino gehiagok begi aurrean eduki baitzuen txapela.*

**P A T R I**

**J A T E T X E A**

**Eguneko bazkariak eta afariak**

Nagusia 6, 20170 Usurbil  
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)



**URTINEA  
LORATEGIA**

*Lore eta lore landareak*

San Esteban  
Tlf. 943 36 22 55

**XABIER  
EDARITEGIA**

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 943 36 19 78

# Berriketan

## Blanca Uribetxeberria Martinez

Aita Urnietarra zuen, ama Zarautzkoa, baina bera Donostiako Antiguoa auzoan jaio zen. Nafar batekin ezkondu eta Mugiron bizitakoa, orain dela 25 urte inguru etorri zen Zubietara bizitzera. Askok "Blanki" izenez ezagutzen dute.



**Euskaraz hitz egiten duzu baina elkarrizketa erdaraz egitea nahiago duzula esan didazu.**

Ez dut euskaraz asko hitz egiten. Ama eta aitak beraien artean euskaraz egiten zuten, baina guri erdaraz hitz egiten ziguten. Txikitari oso gutxi egiten nuen euskaraz, haurrak zaintzen nituenean ikasi nuen zerbait. Gizona ere nafarra nuen, baina euskalduna.

**Eta zure alabek euskaraz egiten al dute?**

Txikitari bazekiten, baina gero eskolan ez zieten euskaraz erakusten eta galdu egin dute. Ulertzen dute, baina ez dute hitz egiten. Alabei behin euskaraz ikastera joango nintzela esan nien. Uhhhh, aditzeekin nahastu besterik ez nintzela egingo esan zidaten.

**Zu Antiguokoa izanda eta gizona nafarra, nola etorri zineten Zubietara bizitzera?**

Orain dela 25 urte gizonak Ingemarrera etorri behar izan zuen lan egitera. Zubietara etorri ginen bizitzera eta hemen jarraitzen dut oraindik, eta gustora gainera. Toki- Eder etxean bizi izan naiz 25 urte hauetan. Etxeak Toki- Eder izena du baina denek Ruso etxea bezala ezagutzen zuten. Taxistek Leku-Ederrera joateko esan eta non zegoen galdetzen zuten. Ruso etxea aipatu ezker, berriz, bazekiten nora joan.

**Eta gustora bizi al zara Zubietako etxe honetan?**

Bai, horixe. Hemen nahi duzuna egiten dugu. Aurrean inor ez da bizi, atzean ere ez. Hemen ez da beste leku askotan bezala leihoko kortina jeitsi behar. Etxean bizi garen guztiok gainera, oso ondo konpontzen gara. Etxe atzean "merendolak eta sardinadak" egiten ditugu. Oso ondo pasatzen dut nik hemen.

**Lehen bizikletan joaten zinen erosketak egitera etza?**

Bai, eta alabak eskolara ere, bizikletan eramaten nituen, aurrena Zubietara, gero Lasartera...hura gehiegizkoa zen. Behin ni baino emakume askoz zaharragoa ikusi nuen kotxea gidatzen. Ai ba! Hori ikasten hari da eta ni? Etxera etorri eta nik ere gidatzeko baimena atera behar nuela esan nien. Ezetz esan zidaten.

**Hala ere zuk gidatzeko baimena atera zenuen.**

Animatuta negoen eta ikasten hasi nintzen. Teorikoa lehenengoan atera nuen, baina praktikoa... Atzeraka joateko martxa sartze hori... Hirian ez nuen ezer errespetatzen. Semaforoak, "ceda el paso"ak ez nituen ikusten... Karneta ateratzeko hiru hilabete eta aste bat behar izan nituen.

**Zenbat saiakera egin zenituen praktika gainditu aurretik?**

Dirua ia gastatu zitzaizkidan, 13. saiakeran atera nuen karneta. Oso urduri jartzen nintzen eta ez nuen ezer ikusten. Hura lasaitasuna gainditu nuela esan zidatenean. Hala ere esan beharra dago: 46 urterekin atera nuen gidatzeko baimena eta orain ere hor ibiltzen naiz nire R-5arekin.

**Gidatzeko baimena atera aurretik, inoiz gidatu al zenuen kotxe bat?**

Baimena atera aurretik banekien gidatzen. 20.000 pezetako kotxe bat erosi nuen eta Zubietatik Lasartera joaten nintzen, gidatzeko baimenik gabe noski. Harrapatu izan banindute... "que juegaa".

**Zein da gustokoen duzun zenbakia?**

Hamahirua, dudarik gabe.

**ORBELDI**  
**MARKEL OLAIZOLA**  
 ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009

**ESTRELLA**  
 Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako

Zubikumea, 10 Tlf. 943 37 18 07  
 20170 USURBIL-GIPUZKOA

**LABE-GOXO**  
 Olindegi - Gpalegi

**Kale Nagusia, 9**  
**Tlf. 943 37 33 48**  
**943 37 09 13**

**USURBIL**

**SERIGRAFIA**  
**TANPOGRAFIA**

**IOSU**

Ugaldea poligonoa 36 - 2<sup>a</sup> - Esk  
 Usurbil - Gipuzkoa

**INDUSTRI ETA**  
**IRAGARKI SERIGRAFIA**  
**KAMISETEN INPRIMAKETA**

# TXOKOALDE

İnaki Labaka



## Parke berria eta iturria auzoan

**U**holdeak izan zirenetik, dena hankaz gora gelditu zen gure auzoa. Urak guztia aurretik eraman zuen eta Txokoalde larru bizirik utzi zuela esan genezake. Orduztik, hau txukuntzen lan handia egin da. Orain itxura berria du Txokoaldek, baina orduetik hona, gauza pare baten premia ikusten genuen. Alde batek iturria eta, bestetik, umeak jolastu ahal izateko parkea.

Lehen zeudenak ur jasak txikitu zituen eta orain udalak hutsune horiek bete nahi ditu.

Horretarako Portu baserriaren aurre aldean parketxo bat ipin-

tzen ari da, auzoko umeak gustora jolastan ibiltzeko, bere txirista eta kolunpioan.

Parkearen ondoan, berriz, iturri berri bat jarri dute. Hamaikak faltan bota dute, batez ere udara partean, izerditan frontoitik edo bizikletan pasatzera koan, ura non edan galdetzen zutenek.

Azkenik, aipatu, iaz baino beranduago bada ere, urtero bezala

Erroizpe Lagunarte aurreko platanook inausi dituztela udaleko langileek. Udaran itzal ederra ematen dute hauek.



# KALEBERRI

Ines Kamino



## Hautsak astintzeko garaia

**E**txeko ganbarako hautsak astintzen hasteko garaia iristen ari da. Otsailean beti hartzen dugu horretarako denbora pixka bat. Izan ere, İnauteriek batera etortzen da erropa zaharrak nolakoak ziren gogoratzekeo garaia.

Bai-bai, lehenbailehen hasi zaitezke erropa bila, badatoz eta İnauteriak. Aurten otsailaren 13an egingo den İnauteri egunerako gaia aukeratzeko nahikoa lan izango da. Tabernetan zenbait kartel jarri dituzte, jendeak bere proposamenak bota ditzan. Denetatik dago. Batzuek benetakoa gaiak jartzen dituzte, beste batzuek

berriz, zerbait jarri behar eta txorakeria ugari azaltzen da.

Zirkoa eta musika izan dira azken bi urteetako gaiak. Zein izango ote da aurtengo gaia? Laister jakingo duzue.

Bestalde, Oiardo kiroledegian Euskal Herriko sokatira lehiaketaren proba jokatu da datoren urtarrilaren 30ean. Euskal kirol eta Joku Federakuntzak antolatuta 560 kilotako talde ugari parte hartuko du. Bi talde izango dira,

eta denek denek aurka egin beharko dituzte tiraldiak. Azken urteetan beti izan dira sokatira txapelketaren tiraldiak Usurbilen, eta aurten ere, mutil indartsu hauek ikusteko aukera izango da kiroledegian.



# ATXEGALDE

## Noaua!n eskribitzen duna...

**A**urreko batean, beste askotan bezala, lasai-lasai jeitsi nintzen dendara. Zer falta ote nuen orduan? Ogia edo gatza, edo...auskalo! Kontua da, dendan nengoela auzotar bat sartu zela:

-Zu al zea Noauan eskribitzen duna?

-Bai, ni naiz.

Bazirudien haserre xamar zegoela. Zeozer gaizki egingo nuen edo...

- Ba, hurrengo alian jarri berdezu basurak hustutzeko. Beti gainezka egoten dia eta izugarriko kiratsa botatzen dute.

Obrero guztik hor botatzen dituzte zikinak eta inork ez ditu sekula hustutzen.

- Jarriko det zer bait.

- Hor jartzen dituzunak, ez dute ezertarako balio. Nei,behintzat, ez zaizkit batere inporta.

Uste dut gorritu egin nintzela, izugarriko beroa somatu nuen behintzat lepotik gora. Eskerrak! momentu hartan, beste emakume hura sartu zen elkarrizketan.

-Hoi ez den hola. Amagoiak eskribitzen ditun beste kontuk inportantiak ditun.

Amagoia Mujika



Ederra lasaitua hartu nuen, baina, egia esan, momentuko lasaitasuna izan zen. Orduztik, emakume haren hitzak burutik ezin kendu nabil. Niretzat ere nahiko aspergarria izaten da obren inguruan edo kexaka aritzea beti, baina auzoaren alde egiten nuelakoan nengoen.

Badirudi ezetz, beraz, nire kroniken norabidea aldatu behar ko dut. Baina, nola ordea? Seguru, zuk izango duzula auzoaren inguruko itxorien bat, bada, kontaidazu. Ea hurrengoan lasai joan naitekeen ogi bila..

# KALEZAR

## Aranerrakatik barrena...

**G**aurko ale honetan ez diogu Udaletxeari ezer eskatuko, ezta auzoan gertatu ohi diren kontu horietako bat idatziko. "Xano-xano" Aranerrakako bailaratzora joango gara.

Puntapaxko bidegurutzetik ezkerretara hartu eta segi aurrera ttipi-ttapa. Agerre-azpiko belardi eta sagastiak pasata, Ugarte Etxeberriko lur sailak aurkituko ditugu. Bertan, **Julianekin** kontu batzuk esan eta segi aurrera, haritz haundi baten ondotik barrena. Zorte pixka batekin **Peñagarikano** aizkolari haundiaren entrenamendu saioa ikusteko aukera izango dugu, erreka zeharka-

tzen duen zubiaren ondoan. Nahiko aizkora kolpe entzun ondoren, ixiltasunean segituko dugu berriro. Aranerrakako iturrira iritsiko gara, bertan eztarria bustitzeko aukera izango dugu.

Aurreraxego joanda, beste iturri bat aurkitzen da, Briten txabolaren ondoan. Garai batean garrafoia bete-bete eginda joaten



Joseba Pellejero



zen jendea.

Lasai-lasai, txoriak lagun dituzula ibili nahiko bazenu, etor zaitez egunen batean.

# SANTUENEA

## Olentzero eserita dago

Agustin Esnaola



**O**rain dela pare bat urte Santuenea auzoan ere Olentzero ospatu genuen. Auzoko koadrila animatu batek proposatu eta aurrera eraman zuten ekitaldia. Auzokideek orduan egin zuten balorazioa oso ona izan zen eta jarraitzeko asmoarekin gelditu ziren.

Horrela ba, aurten ere, Olentzerok "mendira lanera" joan aurretik, Santuenea auzoan opariak banatu zituen. Ez opariak bakarrik, umorea, alaitasuna, baita festa giro ederra ekarri ere.

Argazkian ikusi daitekeen bezala, koadrila ederra atera zen Olentzerori laguntzera. Auzo guztian zehar ibili ziren,

akordeoia hartu eta honen laguntzaz abestu eta dantzatuz. "Lanera joan" aurretik auzoko sagardotegian txotx ere egin zuten, atzean dauzkaten kupelak hustu gabe noski.

Beti esan dut auzo honek auzo bizitza baduela. Argazkian ikusten den bezala, Olentzeroren opari banaketan gazte, heldu eta haurrak elkartu ziren. Honelako ekintzak auzokide batzuei esker egiten dira eta beraiei eman behar zaizkie benetako eskerak.

Bildutako dirua hirugarren mundura bidali

zuten. Hau bai dela txalogarria, lana egin eta umorea jarri ondoren ateratako dirua larrialdian dagoen beste herri batera bidaltzea. Hau bai elkartasuna. Mila esker auzokideoi eta horrelako ekintzak bultzatzen jarraitu dezazuela.



# URDAIAGA

## Erregeak pozik udaltzain berriarekin

Alazne Begiristain



**E**zertan hasi baino lehen, nahiz eta denboraz kanpo izan, urte berri on esan nahi nizueke guztioi.

Gaurko honetan, Usurbilgo "udaltzain berriaz" hitz egin behar dizuet. Auzotarra dugu bera eta ez du ez "patrol", ez inolako kotxeren beharrik. Nahikoa du bere bizikletarekin. Bai, bai, Albaritox ari naitzaizue hitz egiten.

Errege bezperan atera nuen ondorioa da hau. Izan ere, bera izan zen kabalgataren aurretik bidea irekitzen joan zitzaiguna.

Erregeek 5.30etan atera behar omen zuten, baina 30 minutuko atzerapenez irten ziren. Urtean zehar, usurbildarrok oso txintxoak izan ez garelako egingo zuten atzerapen hau, pixka bat beldurtzeko, beharbada. Ea aurten hobeto



portatzen garen. Baina, hala ere, jendea zain egon zen. Niri esan didatenez, usurbildar gazte batzuk arratsaldeko 3.30etatik han egon omen ziren erregeak noiz ikusiko zain, eskuetan bere plastikozko poltsa eta guzti. Ez dut uste ikastolara joateko bi ordu lehenago esnatuko direnik. Alde horretatik, behintzat, erregeenganako edo goxokienganako ilusioa mantentzen dute haurrek.

Azkenik, gaia aldatuz, buzoiak konpondu dituztela esan nahi nuke. Ea aurrekoek baino gehiago irauten duten.



# AGINAGA

## Aginagako Komunitatea

Urtarrilaren azkenengo igandean, "Aginagako komunitateak" bere urteko Batzarra ospatuko du. Honek ez du esan nahi aginagatarrok batzarrean bilduko garenik, baizik eta "komunitateko" baz-

kide diren baserri jabeak izango direla han bliduta.

Komunitate hau, Usurbilgo beste hainbat auzoetako kidez osaturik dago: Txokoalde, San Esteban eta Santueneakoak, hain zuzen ere. Elkarrekin honen sorrera, helburuak, noiz eta nola eratu zen zaila zaigu segurua esatea, baina aurkitu dugu 1789. urteko data duen liburu bat.

Komunitateko kideek "eskubide" bereziak zituzten. Esate baterako, Andatzako garoa eta horbela ebakitzeko sailak komunitateak banatzen zituen, sutarako egurra

Manuel Begiristain



jasotzeko ere eskubide berezia zuten komunitateko partaideek.

Garai batean, "Aginagako Komunitatea" hainbat baserri eta lur sailen jabea bazen ere, gaur egun pinudi batzuk besterik ez ditu.

Interesgarria izango litzateke daukagun dokumentazio eta liburuetan pittin bat arakatzea. Honek erakutsiko baitigu, neurri handi batean, gure aurrekoak nola bizi ziren, auzoetako harremanak nolakoak ziren, azken batean, herri honetako historia baita. Ea ba nor animatzen den eta heltzen dion adarretatik gai polit honi!



# ZUBIETA

## "Endika Abril" errebote txapelketa

Errebote zaleak zaretenek, agian, galdetuko diozue zuen buruari 1998ko "Endika Abril" txapelketarekin ze arraiogertatu ote den, amaitu ote den, nor ote den txapeladuna, zubietarrak noraino iritsi diren... Azalpen batzuk ematea komeni da, aurtengo txapelketaren norabidea ez baita normala izan.

Dakizueenez, "Endika Abril Txapelketa" Billabona eta Zubietako plazetan jokatzeko den errebote txapelketa da, udazkenean, hain zuzen ere. Aurtengoak (1998koa esan nahi dugu) irailaren 6an izan zuen hasiera eta azaroan bukatzekoa zen. Hala ere, aurtengo udazkenean eguraldia

ez dugu batere lagun izan eta asteburua joan asteburua etorri euria izan da nagusi, eta ez nolanhikoa, izugarrizko zaparradak izan genituen eta normalean, justu, igandeetan. Asteazken zehar zeruari begira pasa eta gero, pena eta amorruz beteta ikusten genuen nola gerturatzen ziren ditxosozko "fronteak". Horrek partiduen atzerapenak ekarri zituen, eta abendua heldu zenean, txapelketaren behin behineko etenaldia erabaki zen.

Joandako urtarrilaren 8an, Iparraldeko Euskal ligaren aretoan egindako bileran, txapelketan diharduten klubek txapelketa martxoan jarraitzea erabaki zuten, eguraldiaren

Mikel Bengoetxea



baimenarekin, noski. Horrela, martxoaren bigarren asteburuan, final laurdenari ekingo diogu Zubietako plazan, eta bertan, etxeko taldeak izango ditugu. Baiona eta Ustarizko taldeak izango dira arerio.

Beraz, errebotearen maitale zaitugun hori, adi egon, laister izango baituzu hain ederra den erreboteko jokua berriz ikusteko aukera.



## Herriko bideetako arazoak ezin konpondu

**F**oru Aldundia eta udalaren artean ezin konpondu bat baino gehiago sortu da azken aldian. Udalak, herriko bideetan sortu diren zenbait arazo konpontzeko eskatu dio Foru Aldundiari behin baino gehiagotan, baina honek ez dio kasurik egiten. Hori gutxi balitz, herriko langileek Bizkarra aldean egindako lan txiki batzuk akats larritzat jo ditu Aldundiak.

Herriko bideetan konpondu beharreko zenbait arazoren aurrean, udalak behin baino gehiagotan jo du azken hila-beteetan Foru Aldundira, baina hemen ez zaio kasurik egin. Aginagako sarrera eta irteera da kasu horietako bat. 634 errepide nazionaletik Aginagara sartzekoan, koska bat pasa behar izaten dute ibilgailuek. N-634 errepideko bidea altuera haundia-goia hartuz joan da bidea berritu duten bakoitzean, eta orain, ibilgailuek lurra jotzen dute askotan, Aginagara sartu edo bertatik ateratzerakoan.

### N-634 errepidea ixteko baimena ukatu zaio

Bestalde, irailean, uholdeek eragindako kalteen ondorioz Aginagan hiru eskoilera eraikitzeko, 634 errepide nazionala mozteko baimena eskatu zuen udalak. Errepide sailak ezezko borobila eman zion. Orioko zubi berria egiten ari zirela eta nahiz eta bien artean 4,5 kilometroko tartea egon, Agina-



*Pasa den urtarrilaren 16an autobus bat errepidearen erdian gelditu zen ez aurrera eta ez atzera bidean dagoen koxkaren ondorioz. Udalak arazo hau konpontzea eskatu dio behin eta berriz errepide sailari.*

gan bidea ixtreak arazoak sortuko zituela esan zitzaion.

Eskaerei kasurik egin ez badie ere, bestelako opari baten berri izan du udalak. Bizkarra aldean, Etxe-Txuri izeneko etxearen azpiko garajearen aurrean lan txiki batzuk egin zituen udalak Aldundiaren baimenik gabe. Euria egitean ura errepidetik garajetara joaten zen. Horri aurre egiteko hodi bat sartu zuten. Orain, Foru Aldundiak "falta larritzat" jo ditu lan horiek.

**Joxe Antonio Altunaren** esanetan Foru Aldundiari dagokio arazo hauek konpontzea. Azken hilabeteetan eskaera bat baino gehiago egin omen dituzte, baina alferrik, ez baitiete kasurik egiten. "Guk ezin dugu ezer egin, Foru Aldundiak egin behar baititu lan hauek. Errepidetako zuzendaritzarekin egindako bileran eztabaidatu genuen guzti hau,

*baina bilerak eta idatziek ez dute ezertarako balio izan. Arazo guzti hauek Aldundiak konpondu behar ditu eta guk ezin dugu ezer gehiago egin".*

### Aldundiak ere lan batzuk egin ditu baimenik gabe

Azken urteetan, nahiz eta Foru Aldundiaren lana izan udalak bideetako zulo bat baino gehiago bete du. Lan horiek ez dira "falta larritzat" jo, baina oraingo kontu hartze honekin, Aldundiari dagokion lanak egitera ez dira ausartzen.

Hala ere, udalari baimenik eskatu gabe Aldundiak ere zenbait lan burutu izan ditu. Intxuspe aldean errekaxo bat bideratzeko zenbait lan egin zituzten eta horretarako bide publiko bat eta jabetza pribatuak hartu, hori guztia baimenik eskatu gabe. Jarrera hori ordea, ez da "falta larritzat" hartu.

# ALBOR TA

## HARATEGIA

Behoko kalea, 4  
Atxegalde ☎ 943 36 57 42

# GALARRAGA GARRAIOAK

\* LUR ONGARRIAK  
\* ZABOR BILKETA  
\* ZISTERNA BEREZIAK

Telf.: 943 37 01 46

# N • U

## Ileapaindegia

MISTOA


Solarium, depilazioa,  
makilajea eta manikura

Arizeta 2-2 1.A  
Tel.: 943 36 19 51

## Kanposantu berria eraikitzeko 13 hilabete

**U**dalak hilerri berria egiteko asmoa agertu zuenetik urte mordoska pasa dira. Proiektua bera ere ez da gaur goizekoa, baina 2.000. urtearen atarian aspaldiko egitasmoa egi bihurtuko da. "Altuna y Uria" enpresaren ardurapean, laister hasiko dira hilerri berria egiteko lanak. Behin lanean hasten direnean, hilerriaren eraikuntza bukatzeko 13 hilabete izango dituzte.

Hilerri berria egiteko lehiaketara aurkezteko epea amaitu ondoren, sei enpresa azaldu ziren lan hauek egiteko prest. Bakoitzaren aurrekontua ikusi eta gero, horietako lauen eskaintzak bertan behera utzi zituen udalak eta "Ubiri S.L." eta "Altuna y Uria" enpresen eskaintzen arteko bat aukeratu behar zuen.



"Ubiri S.L." enpresarena zen aurrekonturik merkeena, 104.297.004 pezetakoa. "Altuna y Uria" k 104.645.985 pezetako eskaintza egin zuen, 350.000 pezeta garestiago. Hala ere, lan zuzendaritzak bigarren enpresari eman dio hilerri berriaren eraikuntza. Bere informean azaltzen

denez, "Ubiri S.L." k 14 hilabete-tan bukatuko zuela agintzen zuen, eta "Altuna y Uria" k 13 hilabete epea jartzen zuen. Horrez gain, lehenengoak ez zuen herriko langilerik aurreikusten, bigarrenak berriz, hiru usurbildarrek parte hartuko dutela aurreikusten zuen hilerri berria eraikitzeko lanetan.

## Frontoiko arazoari irtenbidea eman nahian

**D**atorren otsailaren 2an herriko taldeekin bilera bat egingo du udalak. Bertan Udarregi zaharrerako ideiak bildu nahi badira ere, frontoia- ren eskubi aldetik sartzen den uraren arazoari konponbidea emateko proposamen bat aurkeztuko da.

Frontoiko estalki berria egin zutenetik euriak sortzen dituen arazoak ez dira konpondu. Haizeak ekialdetik jotzen duenean, eskubi aldetik euria sartu eta eserlekuak eta frontoiko lurra bera busti egiten dira.

Udalak informe bat eskatu zion arkitektoari. Honen esanetan, dagoen estrukturalari ezin zaio ezer erantsi. Zerbait egitekotan oinarri berriak jarri behar harko lirake. Horregatik, udalak, estalki berriari eskubiko aldean ezin zaiola ezer erantsi argi utzi nahi du.

Hala ere, arazoa neurri batean konpontzeko, herritar batek egindako proposamena daukate esku artean: eserlekuei estalkia jartzea. Hauek okertuta egongo litzatekeenez, sartzen den ura atzera joango litzateke.



## TXIMINIA ALTZARIAK


**Osinalde industrialdea**  
(Aizpurua autobusen aldamenean)

**Tel.: 943 37 09 66**

**BISITA EZAZU  
ALTZARI-ERAKUSKETA HANDI BAT  
USURBILEN BERTAN.  
PREZIO HARRIGARRIAK! AUKERA  
HANDIA ALTZARI TRINKOETAN.  
ESKAINNTZA BEREZIAK BETI!!**

# Zubietako plan partziala bide berri bati emango dion

## plan partziala



### Orain dauden eraikuntzak:

- 1- Eliza
- 2- Plaza
- 3- Eskola txikia
- 4- Lanbide eskola

### Egingo dituzten eraikuntzak:

- 5- Bifamiliarrak, pribatuak.
- 6- Bifamiliarrak, babes ofizialekoak.
- 7- Babes ofizialeko etxebizitak. 2 bloke.
- 8- Frontoi estalia.
- 9- Kultur etxea.
- 10- Bide berria.

**Z**ubietako plan partziala onartu da azkenean. Usurbil eta Donostiako udalek behin-behineko onespenera eman zuten urrian, abenduan berriz, Gipuzkoako Foru Aldundiak behin-betirako onartu zuen Zubietan etxebizitzak egiteko plan hau. Guztira 96 etxebizitza egingo dira, hauetatik 66 babes ofizialekoak. Hala ere dena ez da larrosa kolorekoa. Lanak hasi baino lehen bertako lurjabeek akordio batzuetara iritsi beharoko dute.

Plan partzial honen historia ez da gaur goizekoa. 70. hamarkadan honelako beste plan bat eskuetan izan zuten, behin behineko ere onartu zen, baina Zubietan etxeak egiten hasiko zirela zirudienean, prozesua eten egin zen. Foru Aldundiak ez zuen plan hura onartu. 20 urte pasa ondoren, berriz abiatu zen prozesua: Donostiak bere plan orokorra zehaztean, Zubietan etxebizitzak egitea aurreikusi zuen eta Zubietako plan partziala egiteari heldu zioten.

1996ko uztailean eman zitzaion hasierako onespenera Zubietako plan partzialari. Geroztik, fase desberdinak izan ditu. Hasierako onarpeneren ondoren alegazioak egon ziren, eztabaidak, zenbait aldaketa, haserreak... denetik egon da azken hilabeteetan. Hala ere, azkenean aurrera egin du plan honek.

Zubietako erabat itxuraldatuko da plan honekin. Orain zelaizabalak dauden lurretan etxeak egingo dira, bidearen non

dik norakoa ere aldatu egingo da, eta pelotaleku estali bat eta kultur etxea egiteko asmoa ere badute.

Momentu honetan etxebizitzena da behar haundiena. Azken 25 urtetan Zubietan ez da etxebizitzarik egin, era pribatua bai, baina oso gutxi. Xabier Arregi Zubietako alkatearen esanetan, *"Zubieta herri gisan garatzeko, ezinbestekoa da jendeak bertan bizitzeko aukera izatea. Urte hauetan ez da etxebizitzik egin, eta pixkanaka-pixkanaka jendea kanpora joan da bizitzera"*.

Plan honen arabera mota desberdinetako 96 etxebizitza egingo dira, hauetatik 66 babes ofizialekoak. Alde bateatik, bi bloketan banatuta 16 etxebizitza egingo dira. Bloke bakoitzak bi pisu izango ditu eta guztiak babes ofizialekoak izango dira. Beste aldetik etxebizitza bifamiliarrak daude. Honelako 25 etxe sortuko dira, bakoitzean 2 etxebizitza izanez. Etxe hauek terreno pusketan bana edukiko dute eta babes ofizialekoak izango dira. Azkenik, 30 etxebizitza pribatuak daude. Hauek ere bifamiliarrak izango dira, baina terreno haundiagoekin.

Bideetan ere aldaketa egongo da. Eskola txiki aurretik hasi eta plaza bukatu arte oinezkoak bakarrik ibili ahal izango dira. Eta nondik pasako da bide berria? Araeta jate-txearen ondotik, Lanbide eskola aurretik Eskola txikira joango da bidea. Garai batean bide berriaren kokapenak iskanbila eta haserre ugari sortarazi zituen Zubietarren artean. Donostiako plan orokorreko aurreproiektuan, bidea behetik, trenbide zaharraren parean, Oria ibaiaren parean egitea aurreikusi zen. Teknikoek, bidea behetik joatea zela egokiena esaten zuten Xabierren arabera.

Hala ere, gero, plan orokorrean bidea goitik egitea arabaki zuten Donostiako politikoei. *"Honelako kasuetan erizpide teknikoek nagusitu behar badute ere, erabaki politikoa erabaki teknikoan gaintik jarri zuten. Beren etxe ondotik bidea ez pasatzeko lurjabe batzuek gora pasatzea proposatu zuten. Beraien aukerak erabili eta bidea gora pasatzea lortu zuten. Bidearen kontu honek oso giro txarra sortu zuen herrian"*. Azkenean beraz, bidea goiko aldetik egingo da.

Plan partziala onartu bada ere, aurrera begira egiteko dagoen bidea luzea da oraindik. Udalek beregain hartu dute plana aurrera ateratzeko ardura. Hala ere, hasiera batean, udalen esku ez dagoen erabaki batzuk daude tartean. Lurjabeek, etxebizitzaren banaketari dagokionean adostasun batera iritsi behar dute. Pauso batzuk eman dira, lanerako balio dezakeen erabat sinatu gabeko dokumentu bat badago, baina lurjabeen arteko adostasuna ez da oraindik gauzatu.

---


### Aurrera begira egiteko dagoen bidea luzea da oraindik

---

Zubietako alkatearen ustez Usurbil eta Donostiako udalek hartu behar dute plana aurrera ateratzeko ardura. *"Hauek epe batzuk jarri behar dituzte gauzak egiteko. Ezin gaitzke etenik gabe akordio baten zain egon, noizbait zerbait erabaki beharko da. Niri zentzuzkoa iruditzen zait esatea, urte honen amaierarako Zubietako plana martxan egongo dela, hau da, makinak etab. Zubietara inguratuko direla. Horretarako garantiarik onena da udalek nolabait akordiotara iristeko erritmoa ezar dezakeela eta lurjabeak, ez badira konpontzen, udalak erabaki dezake zer eta nola egingo diren gauzak. Plan hau aurrera ateratzeko bi udalek gainean egon beharko dute"*.

Plan partziala onartu da bai, baina zubietarrek amesten duten Zubieta berriak itxaron egin beharko du. Plan hau ez omen da denen gustokoa, baina gauza batetan ados daude gehienak: Zubietak etxebizitzak behar ditu.

Josu Aranberri



## Atxega jauregia berritzen hasi dira

**Ez du lan makala eman Atxega jauregiak. Errentan hartzeko lehiaketa bat baino gehiagoren ondoren, zenbait arau aldaketa egin eta gero, ostatua jartzeko lanak hasi dituzte.**

Elementu apaingarri guztiak errespetatuz, zaharberitze lanak egiten hasi dira Atxega jauregian. Barruko euskarrien egoera txarra ikusita, hauek berritzea izan da lehenengo lana. Hemendik aurrera, pixkanaka-pixkanaka, horrenbeste urtetan ukitu gabe egon den jauregia berriro egingo dute.

Izan ere, hotel txiki bat jartzeko asmoa dute. Beheko solairuan 80-100 pertsonentzako jangela duen jate-txe bat jarriko dute, kafeteri eta guzti. Goiko bi solairuetan, berriz, bilera gela batekin batera 16 logela egingo dituzte.

Jauregiaren izaera historikoa errespetatuko badute ere,



honi itsatsita zenbait berrikuntza joango dira. Jatetxea haunditu ahal izateko kanpalkaldean jarriko dituzte sukaldeak eta almazena.

## Lanordu bat XXI. mendeko Akordioaren alde


**Pasa den abenduaren 26an Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak antolatutako "XXI. mendeko akordioa: Bai euskarari!" kanpainak amaiera ikusgarria izan zuen aldi berean Euskal Herriko bost estadio nagusietan ospatu zen ekitaldi erraldoiarekin.**

Ofizialki kanpaina hau egun horretan bukatu zen. Oraindik, ordea, badago beste zerbait. Hasiera batean "Lanordu bat Akordioaren alde" ekimena kanpainaren barruan egiteko zen, baina sindikatuak horrela eskatuta, otsaila arte atzeratu zen. Otsaila gainean dugu, eta ekimena aurrera eramateko garaia iritsi da.

Hego Euskal Herriko langile

guztiei deialdia luzatu zaie beren lanordu baten diru balioa euskararen plangintza estrategikoa aurrera ateratzeko eman dezaten. Era berean, enpresei, gutxienez beren lan-

gile guztiak jarri dutena eskatu zaie. Ekimen hau guztiz borondatezkoa eta puntuala da. Behin egingo da eta nahi duenak parte hartu dezake egitasmo honetan.



Abenduaren 20an egin zen usurbilen "Bai euskarari" kanpainako festa

Haur jantziak



**Pauma**

Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43

# MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen modako arropa guztia hemen aurkituko duzue  
**%50eko beherapenak**

Etxebeste kalea,3 - Tif. 943 36 11 06

*Zinkildegia*

Lentzeria, gizonzkoentzat arropa, haurren jantziak, etxerako behar dituzunak

Aritzeta 1 behea, 20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87

**ESKERRAK URRUÑAKO IKASTOLAREN PARTEZ**


Urruñako ikastolak "1000 harri behar ditugu ikastola eraikitzeko" kanpaina bukatzeaz dagoenean, laguntzaile izan diren guztiei eskerrik beroenak luzatu nahi dizkie. Guztira 1600 harri bildu dituzte Euskal Herriko txoko guztietan, eta honenbestez 17 milioi lortu dituzte, hasiera batean amesten zutena baino askoz gehiago. Diru honek, orain dauden eta gero helduko diren gurasoek beregain hartuko duten mailegua arintzeko balioko du. Bitartean, ikastola berria eraikitzen ari dira.



**U**darregi ikastolako ikasleek aurre hartu zioten San Sebastian eguneko danborradari. Txapelak buruan, makilak eskuan eta danborrak gerripean hartuta, Udarregi aurreko plazatik norabide guztietara zabaldu zuten danbor soinua. Danbor nagusi bizar haundiaren gidaritzapean Sarriegiren hainbat doinu jo zituzten. Aurtengoan ezin eguraldiaz kexatu, eguzkiak gogotik jo baitzuen arratsaldean zehar. Bukatzeko, "paseillo" a ere egin zuten Udarregiko plazan.

**HERRI BATASUNAREN DEIALDIA**

Udal hauteskundeak ate joka datozela eta, Herri Batasunak herritarrei dei bat egin die. Alderdi honek herritarren ikuspegi, planteamendu eta ekarpen berriak nahi ditu. Alde batetik Euskal Herritarroken Usurbilgo udalerako zerrenda osatzeko proposamenak jaso nahi dituzte, eta herri bizitzako arlo desberdinetan gauzatu beharreko programa osatzeko aholkuak ere nahi dituzte. Otsailaren 7a bitartean egin daitezke ekarpen hauek auzo baitzuen jarritako buzoietan zure iritzia emanez.




**H**asi da txotx denboraldia. San Sebastian bezperaren zain egon gabe ireki dituzte aurten ere sagardotegiak beren atea. Sagardo berria probatu dutenak bat baino gehiago izango dira, eta lehen aldiz 1998ko sagardoa dastatzeko asmoa dutenak ere ez dira gutxi izango. **Usurbilgo sagardotegiak** behintzat **zabalik** daude. Aurtengo sagardoa iazkoa baino hobea datorrela esan digute herriko sagardogileek. Orain probatzaileek baieztatu beharko dute hori.



**P**asa den urtarrilaren 18an urteko lehen odol emanaldia egin zen anbulatorioan. **49 usurbildarrek eman zuten odola** eta guztira **16,6 litro** bildu ziren. Oraingoan, aspaldiko partez, ez da odol emaile berririk izan, horregatik odol emaileen elkar-tekoek, usurbildar guztiak odola ematera animatu nahi dituzte. Gazteek odol gutxi ematen omen dute. Beraz, martxoan izango den hurrengo odol emanaldira joan daitezten deialdi berezia egin dute odol emaileen elkar-tekoek.

**BORDATXO EDARITEGIA**

PINTXO BEREZIAK



**TXIRIBOGA TABERNA**

pintxoak, bokatak eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13



**BAZKARIAK ETA AFARIAK**

Santuenea 23 Tlf. 36 27 34

Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42

# Jon Carbayeda: "Ziklo-krossak ez du dirurik ematen, errepideak bai"

**Z**iklo-kross denboraldia amaitzekotan dago. **N**eguko hotzari aurre eginez, elur eta lokatz artean txirrinda hartu eta aldapa gora eta behera ibili dira hainbat txirrindulari. Tradizio haundiko kirola izanik, txapelkun ugari eman ditu Usurbilek. Ezin ahaztu Gorostidi eta Haimar Zubeldia, ezta kadete eta jubentzetan hainbat txapelketa irabazi izan dituzten gazteak ere. **Aurten ere, puntako postuetan herritar bat ibili da: Jon Carbayeda.**

## Aspaldiko partez ziklo-krossean aurten.

Egia esan denbora dexente pasa da ziklo-krossean aritu nintzen azken urtetik. Oker ez banago bost urte dira ez nuela neguan ziklo-krossa egiten.

## Nola animatu zara berriz ziklo krosseko bizikleta hartzera?

Dana Onako jubentzetan entrenatzen hasi nintzen, baina bizikletan ibiltzeagatik bakarrik. Gero, anaiak lehenengo laisterketetan parte hartzeko animatu ninduen, ea zer moduz egiten nuen ikusteko. Nazioarteko mailakoa zen eta laugarren postua lortu nuen. Handik aurrera hemen inguruan izan diren laisterketa gehienetan parte hartu dut elite mailan.

## Estatutik kanpora ere irten zara ezta?

Denboraldi hasieran Suitzara joan ginen Munduko kopako

laisterketa batera. Denboraldiko nire bigarren laisterketa zen eta ez nuen bukatu. Gutxi entrenatuta joan nintzen, baina bestela ere nazioartean duten maila gurea baino askoz hobea da.

## Errepideko txirrindularitzan txirrindulari onak badaude Euskal Herrian. Zergatik ziklo krosean ez da berdina gertatzen?

Kanpoan, azaroan hasten dira laisterketekin, eta entrenatzen lehenago. Haiek laisterketekin hastean gu entrena-



tzen hasten gara. Hemengo maila eta Holanda edo Belgikakoa ezin dira konparatu. Orain dela urte batzuk Gaizka Lejarretak bigarren egin zuen jubentzetan Munduko txapelketan, baina gero afizionatutara pasatzean ez zuen ziklo krossean jarraitu. Errepidean ona denak ez du ziklo-krossa egiten, ez baitu dirurik ematen.

## Zuk ere gaztetan zenbait txapelketa irabazi zenituen ezta?

Bai zenbait txapelketa irabazi nituen, nahikoa ondo ibiltzen

ginen usurbildarrak garai batean. Jubentzetan, Gipuzkoako txapelketa izan nintzen eta Espainiakoa bigarren postua eskuratu nuen.

## Eta aurten zer moduzko denboraldia egiten ari zara?

Uste baino hobeto ibili naiz. Laisterketarik ez dut irabazi, baina hirugarren, laugarren postuak egin ditut. Hainbeste urte ziklo-krosean ibili gabe egon ondoren ez zait horren gogorra egin. Porriñon (Galizia) jokatu zen Espainiako txapelketan adibidez, seigarren postua eskuratu nuen elite eta 23 urtez azpikoen artean. Bosgarren nindoan, seigarrenarekin batera. Banekien sprintean irabazi egingo zidala eta azken itzulian jeitsiera batean dena arriskatzea erabaki nuen. Ez zitzaidan ondo atera, poste baten kontra jo

eta lurrera erori bainintzen. azkenean seigarren amaitu nuen.

## Orain Eslovakiara zoaz Espainiako selekzioarekin.

Oraindik ez dakit eramango nauten. Espainiako txapelketan gripea harrapatu nuen, ez naiz oso ondo egon azken egun hauetan, baina joateko itzaropena badut. Han izoztutako lurretan korritu beharko dugu. Laisterketa amaitzea gustatuko litzaidake!



**URTARRILAK 30 larunbata**

- Kadete mailako **eskubaloi partidua** (N): **Usurbil K.E. - Bera-Bera**. Oiardo kiroldegian 17.00etan.
- Jubenil mailako **eskubaloi partidua** (N): **Usurbil K.E. - Goierriko II**. Oiardo kiroldegian 18.30etan.
- Kadete mailako **eskubaloi partidua** (M): **Egia - Usurbil K.E.** Egiako kiroldegian.
- Jubenil mailako **eskubaloi partidua** (M): **Egia - Usurbil K.E.** Egiako kiroldegian.
- 2. nazionaleko **eskubaloi partidua** (M): **Egia - Usurbil K.E.** Egiako kiroldegian.
- 1. errejional mailako **futbol partidua** (M): **Tolosaldea - Usurbil F.T.** Berazubi futbol zelaian.
- Nesken errejional mailako **futbol partidua** (N): **Usurbil F.T - San Ignacio**. Harane futbol zelaian arratsaldeko 16.00etan.
- Jubenil mailako **futbol partidua**: **Usurbil F.T. - Mundarro** Harane futbol zelaian.
- Kadete mailako **futbol partidua**: **Usurbil F.T. - Orioko** Harane futbol zelaian.

**URTARRILAK 31 igandea**

- Hondartzako **futbol txapelketa** Kontxako hondartzan. **Aginaga Sagardotegia - Trofeos Egia**

**OTSAILAK 6 larunbata**

- Kadete mailako **eskubaloi partidua** (M): **Almen - Usurbil K.E.**
- 2. nazionaleko **eskubaloi partidua** (M): **Usurbil K.E. - Deusto**. Oiardo kiroldegian 18.00etan.
- Kadete mailako **eskubaloi partidua** (N): **Leizaran txiki - Usurbil K.E.** Andoaingo udal kiroldegian.
- Jubenil mailako **eskubaloi partidua** (M): **Arrate-Usurbil K.E. Eibarko Ipuru** kiroldegian.
- 1. errejional mailako **futbol partidua** (M): **Usurbil F.T. - Antoniano**. Harane futbol zelaian 16.00etan.
- Nesken errejional mailako **futbol partidua** (N): **Oiartzun - Usurbil F.T** Ugaldetxo futbol zelaian.
- Jubenil mailako **futbol partidua**: **Saporting de Herrera - Usurbil F.T.**
- Kadete mailako **futbol partidua**: **Antoniano - Usurbil F.T.**

**Emaitzak****Futbola****Urtarrilak 16-17**

Zumaiako **2** Usurbil F.T **0** (1.R.)  
Usurbil F.T **3** Allerru **2** (n.)  
Kostkas C **2** Usurbil F.T **5** (2.ju)

**Urtarrilak 23-24**

Usurbil F.T **3** Kilimon **1** (1.R.)  
Ostadar **1** Usurbil F.T **1** (n.)  
Adavi Eguzki **3** Usurbil F.T **2** (2.ju)

**Eskubaloia****Urtarrilak 16-17**

UPV/EHU **23** Pulpo **28** (2.N.)  
Leizaran **21** Usurbil K.E. **40** (ju.m)  
Usurbil K.E. **26** Goierriko **16** (ju.n)  
Usurbil K.E. **9** Goierriko **5** (ka.n)  
Aloña Mendi **19** Usurbil K.E. **24** (k.m)

**Urtarrilak 23-24**

Usurbil K.E. **29** Arabacan **25** (2.N.)

**Futbol Areta**


Barandiaran **5** Antxeta **6** (ju.m)

**Hondartzako futbola**

Aginaga Sagar. **4** AEG **2**

**Laburdurak**

R.: errejionalak    ka.: kadeteak  
N: nazionala    n.: neskek  
ju.: jubenila    m.: mutilak



**E**skuz lau eta erdian binakako txapelketa jokatu ohi da urritik abendura bitartean. Aurten, ordea, **lehen aldiz banakako txapelketa** antolatu dute pelotazale batzuek. Banakako txapelketa hau jokatu nahi duzuenok orain duzue aukera. **Otsailaren 5ean amaituko da izen emateko epea**, eta Aitzaga, Txiriboga, Benta edo Irratira gerturatu zaitezketen **1.000 pezetaren truke** izen ematera. Ondoren, otsailaren 6an, arratsaldeko 17.00etan bilera egingo da txapelketan parte hartu nahi duzuen guztiokin. Anima zaitezte!



# 5239 biztanlera jeitsi gara


**U**surbilgo biztanle kopurua gorantz zihola ziru-  
dienean beherantz egin du berriz ere. Pix-  
kanaka-pixkanaka 5000 zenbaki horretara  
gerturatzeko ari gara. 1997an 5311 biztanle izatera  
iritsi ginen, baina 1998a bukatzean 5239 biztanle  
zituen Usurbilek, 1996an baino 26 gutxiago.

Hala ere ez da jaiotza eta heriotzen kontua.  
Azken urteetan jaiotza kopurua heriotzarenaren  
gainetik izan dugu. Aurten ere horrela gertatu da.


35 usurbildar hil badira ere, 1998ko kintako 46  
jaio berri izan dira, iazko kopurua baino bat  
gutxiago. Beraz, etorritakoak joandakoak baino  
gehiago izan direla esan dezakegu.

Adinez adin hartzen badugu, 1970ean jaiotako-  
ek osatzen dute Usurbilen bizi direnen kopuru ha-  
undiena, 115. 1968 eta 1972 artean jaiotako  
batazbestekoa da altuena, 105,5koa. Beste guz-  
tiak ez dira 100 biztanlera iristen.


Hildakoak



Jaiotakoak




Biztanleria



1998ko Abenduan langabezi datuak Inem-en arabera

	Guztira	Gizonak	Emakumeak
20 urtez azpikoak	10	4	6
20 urteik 24ra	55	22	33
25 urteik 29ra	58	25	33
30 urteik 34ra	41	15	26
35 urteik 39ra	26	10	16
40 urteik 44ra	24	9	15
45 urteik 49ra	11	4	7
50 urteik 54ra	18	11	7
55 urteik 59ra	10	8	2
59 urteik gora	2	0	2
<b>Guztira</b>	<b>255</b>	<b>108</b>	<b>147</b>



*Ekaitz*

**Bideo eta Argazkiak**

Usurbil

Tlf 943 36 14 87

01ARTZUN

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL



## Santa Ageda bezperako ohitura zaharra

**E**uskal Herriko herri gehienetan Santa Ageda bezperan eskean aritzeko ohiturak bizirik dirau. Dena den, bere jatorria nondik datorren jakitea komeniko litzateke.

Santa Agedaren berri izan aurretik ere, urte sasoi honetan udaberri aurreko jaiak egiten ziren Euskal Herrian. Gero, ospakizun horiek bere egin zituen elizak. Udaberriari ongi etorria egiteko ospatzen zen eta uzta ona eskatuz, erabiltzen zituzten makilez lurrari kolpeak ematen zizkioten.

Adituek diotenez, Donejakue Bidea Euskal Herrian barrena egiten zuten erromesek zabaldu zuten Santa Agedarenganako debozioa. III. mendean sortu zen Santa Ageda Palernon (Sizilia), eta jauntxo bat haren edertasunaz maitemindu zen. Baina Ageda gazteak birjintasuna preziatzen zuen guztia-  
ren gaineratik, eta jauntxoarekin inolako harremanik izateari uko egin zion. Gizonezkoak mendekua hartu zuen eta hil arterainoko sufrimendu latza pasarazi zion. Bi bularrak moztu zizkion, besteak beste. Harrezkero, martiri eta birjina da Eliza Katolikoarentzat, eta bularreko gaitzaren zaindari.

Egun horri buruz gordetzen diren ohituretan, suarena aipatzea komeniko litzateke. Agedaren jaioterrian, Catanian (Italia), Etna sumendiaren erupzioen kontra joan dadin dei egiten zaio. Nafarroako Sakana bailarako Burundan tximiniak garbitzeko ohitura dago egun horretan. Oraindik herri batzuetan ezki-lak jotzen dituzte horrekin inguruko sorginak uxatuko dituzten ustetan. Ablitasen aldiz, gauean sutzarrak pizten dira kanpandorretan. Arronizko bizilagunek berriz,,



hainbat lekutan sua pizten dute. Altsasun, kintoak, dirua atera asmoz, neskek egindako opilak biltzen eta ondoren saltzen ibiltzen dira.

Dena den, gaur egun zabalduena dagoen ohitura baserri-  
nagusiari koplak botatzen zaizkio. Trikitiaren laguntzaz giro ezin hobea sortzen da, lagunartekoa eta zirikatze-  
gogoia izaten den horietakoa, noski.

ilunabarrean ateratzen dira Santa Ageda eskera. Ohiturari jarraituz otsailaren 4an izaten da eskea, egunaren bezperan alegia, eta tabernako nahiz etxeko etxekoandre edo nagusiari koplak botatzen zaizkio. Trikitiaren laguntzaz giro ezin hobea sortzen da, lagunartekoa eta zirikatze-  
gogoia izaten den horietakoa, noski.

### Santa Agedaren bertso berriak Udarregik jarriak

Santa Ageda dama eder bat  
Sizilian zan jayua,  
Cataniako juezen mende  
Igaro martiriyua  
Egin nai izan ziotelarik  
gaiztoak engañiyua,  
ez bai zioten muda erazi  
sekulan opinuia.

Cataniako gobernadore  
Kinziano zan orduan,  
kristandadia galerazi ta  
bere emazte nai zuan.  
Jesukristori bere bizitza  
len agindua bai zuan,  
erejiakin bat egitiaz  
gustorik artzen etzuan.


Kristal puska ta talaverakin  
galtzara eragin zuan,  
larru gorrian, soka lepotik  
zeukala eraman zuan;  
an arrastaka erabiltzeko  
sententzia eman zuan,  
oiek guztiak eginda ere  
mudantzarikan etzuan.

Alde guztitik puska jario  
Santaren gorputz ederra,  
au ikusi ta ez lastimatzen  
ereje biotz gogorra!  
"borondaterik ez badaduka  
mudatuko du biarrak,  
arma zorrotz bat ar zazute ta  
ken zaizkatzute bularrak"

Kalabozora eraman zuten  
puskak zintzilik zeukala,  
odola ere bazerarion  
iturriari bezela;  
Jesukristori eskatzen zion  
munduaz aspertu zala  
konbeni bazan, aren despeida  
arren disponi zezala.



**Joxe Mari Arzallus  
Egiguren**



- Goiaztarra
- Orain dela 30 urte irakaskuntzan hasia
- Umeak tentatzea gustatzen zaio
- Eta zaharrekin hitz egitea ere bai

## Lehengoa bezala oraingoa, aldatu egingo da

**G**aurko gaztetxoek ez dakite orain 40-50 urteko bizimodua nolakoa zen. Orain dela hamabost-hogei urte konturatu nintzen diferentzia hori handia zela. Garai hura ezagutu nuen pixka bat, baina gaztetxoek, orduko kontu batzuk entzutean, bitxikeria bezala hartzen zuten. Beren gurasoei galdetzeko esan eta hori egiten zutenak harriturik etortzen ziren, aitak edo amak gorabeherak berdin-berdin kontatzen zituela esaka.

Eta orain beste gauza baten kezka sortu zait: orain 60-70 urteko bizimodua ezagutu eta egin beharra izan zuen jendeak haren lotsa pixka bat ote daukan. Tartean-tartean, orduko gauzak kontatzeko gogorik azaltzen ez duten edadeko pertsonak egokitu zaizkit. Azkenean kasu batean positiboki konprobatu dut, nahiz eta dena zehatz-mehatz kontatu, gero publikatzerik ez duela nahi. Txorakeriak edo "pobreen gauzak" ote diren...; jendeak horrelakoak irakurtzeko ez duela gogorik eta interesik izango edo...

Nik ezagutzen dudana, (40-50 urte) gehienbat baserri giroko bizimodua da. Baina garai hartako pertsonen jokabideek gaurko edozein lagilerekin konparatzeko ez daukate lotsarik. Bizitzeko behar zuena norberak egin, izan, saldu edo erosi behar zuen ardu eta arrisku guztiekin. Ez diot inori meriturik kendu nahi, baina jokabide hori gaur aurrez ondo pentsatzekoa izango litzateke.

Eta besterik gabe, 1949-55 bitartean gure herri txikian ezagutu nuen bizimoduaren adierazle batzuk azalduko ditut.

Apaiza, sendagilea, maistra eta dendari-tabernari-udaltzaina izan ezik, beste guztiak baserritarrak ziren.

Eskolara joan ohi ginenak berrogei neska-mutil baginen, bost urtetik hamalautara denak batera. Gure etxetik kalera (?) (baina oso polita da) kilometro eta erdiko gurdibide+bidezigo-rra zegoen. Egunean bi buelta, hotz edo bero. Gure oinetakoak, abarkak, apretak edo, azkenerako, katiuskak. Zirarik ez zen. Kartoizko maleta batean, adinaren arabera katona edo Alvarez-en Enziklopedia, pizarra, pizarri-

loa, koadernoak, lapitzen bat eta dotrina.

Garai hartako aitonek, igandetan mezatarako, brusa jazten zuten; gure adinekoen gurasoek (30-40 urte) ez. Hauetakoren batek erosi zuen urte haietan herriko lehenengo gabardina. Garai hartako gizonak hiru jazerka zezukaten: lanekoa, feriarra eta goiz-mezara joatekoa eta trajea hiletetarako, prozesioetarako eta ezkontzetarako. Zapata-pare bakarra eta puskatu arte.

Jan, astean egunero babarrun beltza eta igandeetan babarrun zuria edo garbantzuak. Ogia, etxean egina, garia zen arte (urtean 26 anega nagusiari eman behar zitzaizkion). Esnea, nahikoa. Txokolatea, ontza-erdika.

Dirua, larunbatetan babarrunak eta arraultzeak salduta. Oinarrizko produktuak bakarrik erosten ziren: olioak, gazta, azukrea, lebadura, leija, xaboia (kafesnea eta ardo pixka bat ere behar izaten ziren). Haragi pixkaren bat ere bai, batez ere inor etortzeko baldin bazen, zopa egiteko eta... Hermandadekoak, botikak eta beste gastu asko ere horiek egin behar izaten zen.

Erosketa asko "sindikaturtik" egiten zen. Ia gauza guztiak granelean saltzen ziren, zakutan, paperezko zorroetan eta etxetik eramandako ontzitan; plastikorik ez zen ezagutzen artean. Oso ezagunak ziren "liberdi bat txokolate" eta "laurden-erdi bat olio" bezalako esanmoldeak. Pentsua ere garesti izaten zen eta askotan "aitak pagatuko duela" esanda uzten ziren sindikatuko erosketak.

Ikuluan bost behi, baina urtean bost txekor hazten komeriak. "Aitak pagatzekoak", urteko errentak eta ikuluko ezbeharrak kitatu eta ez zen txekor-diru asko sobratzen.

Orduko eta oraingo bizitzako helburuek funtsean ere diferentzia dexteña ote duten esango nuke. Orain hutsik dagoen baserri baten aurrean edadeko emakume batek hauxe esan zidan: "Hemen ere bederatzi ume hazi ziren, ba..."

Xehetasunetan sartuz gero, arlo-tekeri asko azalduko litzateke, baina garai hura bizi izan beharrak ez dit batiere lotsarik ematen.

## Bota bertsoa

### Kontrabandoa

Isilpekoak izaten dira  
kontrabandoko jardunak,  
berari esker izan ohi dugu  
J.B. eta Fortunak  
itsaso zabal, mendirikmendi  
ekarri ohi ditugunak,  
ez da makala guzti honekin  
lortu ohi diren fortunak,  
kontrabandista gehienak dira  
traje ta korbata dunak.

Egilea: Enrike Huizi  
Doinuak: "Mutil koxkor bat"

## Lehiaketa



**Zein dira argazkian  
agertzen diren neska-  
mutil hauek?  
Ezagutzen al dituzu?**

*Guk, hauetako bosten izen  
eta abizenak behar ditugu.  
Asmatzaileen artean Patrienea  
tabernan bi pertsonentzako  
afaria zozketatuko dugu.*

Aurreko aleko galderaren erantzuna ez zen oso zaila izango, inoiz baino erantzun gehiago jaso baititugu gure buzolan. Guztiok eman dizkiguzue gutxienez 8 izen, baina inork ez ditu argazkian azaltzen diren 24en izenak eman. Zein diren jakin nahi duzuela? Adi-adi irakurri: **Pedro Rezola, Antonio Carrera, Antonio Unanue, Pedro Mari Mayo, Jose Mari Zubeldia, Jorge Aizpurua, Paco Exposito, Domingo Korta, Miguel Lizaso, Pedro Arruti, Martin Manterola, Jose Portu, Gregorio Arrillaga, Marcelino Bereciartua, Pedro Mari Segurola, Jose Camino, Jose Murua, Jose Mari Errasti, Candido Mujica, Candido Mayo, Blas Olasagasti, Joxe Azconobieta, Asensio Arruti eta Agustin Beguiristain.** Erantzun zuzena eman duzuenon artean zozketa egin ondoren, Antonio Unanue Rotetak irabazi du Tragoxka tabernako bi lagunentzako afaria. Zorionak!



**TABERNA**

**"GYRE PRESOAK**

**HERRIAN BEHAR DITVGV"**

Iraza kalea, 12  
Tlf: 943 36 02 17



**TXURRUT**

**edaritegia**

*Giro eta musika atsegina!*



San Esteban kalea, 1  
Tel: 943 36 00 80

## URTARRILAK 30 ostirala

- Hilabete bakoitzeko azken hilabetean egiten den bezala, **Senideaken manifestazioa** egingo da arratsaldeko 20.00etan.

## URTARRILAK 31 larunbata

- **Euskal Herriko sokatira txapelketa** jokatu da Oiardo kiroldegian. Arratsaldeko 17.00etan hasita, 560 kilotoa taldeak izango dira aurrez-aurre.

## OTSAILAK 1 astelehena

- **Euskal Herria askatu!**-ren konzentrazioa arratsaldeko 20.00etan errotondan.

## OTSAILAK 2 asteartea

- Udalak deituta, **herriko elkarteekin bilera** egingo da Irazu kalean dagoen Udarregi zaharrari zer erabilpen eman nahi zaion ideia batzuk ateratzeko. Udarregi zaharrea arratsaldeko 19.30etan.

## OTSAILAK 4 osteguna

- **Santa Ageda bezperako eskea** irtengo da frontoi atzetik arratsaldeko 19.00etan. Baserritarrez jantzita etortzea derrigorrezkoa izango da.

## OTSAILAK 8 astelehena

- **Euskal Herria askatu!**-ren konzentrazioa arratsaldeko 20.00etan errotondan.

## LANPOSTUAK

- ✓ **Etxeko lanak egiteko eta bi neskato zaintzeko**, kotxea duen **neska euskaldun bat behar da**. Ordutegia: aste-gunetan 8.30etatik 20.30etara eta larunbatean 8.30etatik 14.00etara. Deitu 943 361195 telefonora (M<sup>o</sup> Jesus) edo 929 458918 telefonora (Mikel).

- ✓ **Neska euskalduna eskaintzen da lanerako**. Etxekolanetan, eta umee-kin esperientziaduna. Zortzi urtetan kamarera lanetan ibilia. Kotxearekin. Deitu 943-593122 edo 943-300917 telefonora.

- ✓ **Neska euskaldun bat behar da** etxeko lanak egiteko eta bi haur zaintzeko. Deitu 943-360615 telefonora

## OHARRAK

- ✎ **Pisu bat alokatzen dut** Kaleberrin. Deitu 943-555072 telefonora.
- ✎ **Pisu bat alokatu nahi nuke** Usurbilen edo Santuenean. Deitu 943-370346 telefonora eta Jabigatik galdetu.
- ✎ **Andatza Kirol Kultur Elkarteak** zer jakinarazi nahi dizue. Urtero bezala aurten ere **eski irteera** antolatzen goaz. Laster jarriko ditugu kartelak. Apuntatzeko epeak errespetatzea eskatzen dugu.

## GURE PAKEA EGOITZA

Gure pakea zahar egoitzak antolatuta euskal taila, errestaurazio, eskulan eta pintura ikastaroak emango dira "Aterpe" tailerrean.

Astelehenero,  
16.00etatik 18.00etara

Kostua: 5000 pezeta

Deitu 943- 360744 telefonora. Joxe Luis Elexpe

## ADI EGON

Agendan zerbaiz jarri nahi baduzue alea atera baino astebete lehenago ekarri. Hurrengo alean zerbaiz jarri nahi baduzue otsailaren 5a da epea.

## SANTA AGEDA BEZPERAKO ESKEA

**Noiz:** otsailaren 4an  
**Ordua:** ilunabarreko 19.00etan  
**Non:** frontoi atzean  
**Nola:** baserritarrez jantzita

## JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea



Fatxaden konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A  
LASARTE-ORIA  
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B  
USURBIL  
Tel.: 943 36 37 67




## ANTXETA

Otsailaren 5ean, 19.00etatik 21.00ak arte, etor zaitez guregana!

Larunbatean mus azkarraren txapelketa 16.30etatik aurrera  
Eguzkitza 4  
Tel.: 943 37 03 44

JATETXEAREN INAUGURAZIOA!

**Etxeko berri**



# Noaqua! koadernatuta

“Gure amonak, bere seigarren ezkontza zela eta, gonbidatu gintuenekoa, noiz izan zen? Irailean edo urrian?” Era honetako galderak maiz egiten dizkiogu gure buruari. Honetarako, **Noaqua! Kultur Elkartek** eskaintzen duen aukera tresna ezin hobea dugu, dudarik gabe: urteko **Noaqua!** guztiak liburu ki batean bilduta edukitzeko. Aldizkarian, urtean zehar agertu diren izen-abizenen arabera, edo gaika, edota artikuluen egileen arabera sailkatutako aurkibidearen laguntzaz, zalantza guzti horiek uxa ditzakegu.

Oso erraza da. Hartu 1998. urteko **Noaqua! hamabostekariaren** ale guztiak -iaz, 24 ale izan ziren-, txukun ipini eta joan zaitez **Noaqua! Kultur Elkartearen** egoitzara, edo Laurok, edota Lizardi liburudendara. Hor izango duzu 98ko liburu kiari dagokion azala. Horri, aurten banatu dugun aurkibidea erantsi eta bi liburudenda horietako batean koadernatzeko agindu, eta egun batzuren gora beheran etxeko apalean izango duzu, iazkoari, aldamenean jartzeko moduko laguna.

**Noaqua! Kultur Elkarteko** bazkide zaretenok azala doan izango duzue eta koadernatzea 1.500 pezeta ordaindu beharko duzue. Bazkide ez zaretenok, azalarengatik 500 pezeta ordaindu beharko duzue. Koadernatzea berdin, besteok bezala. Aleren bat falta bazaizue, ez izan lotsarik gure egoitzan eskatzeko. Liburukia osatu eta ale guztiak eskura izango dituzue eta. Bazkideok doan, eta besteok ale bakoitza 200 pezeta ordainduz.

Honekin batera, 96/97ko liburukia osatu nahi duzuenoi aukera eskaini nahi dizuegu berriro. Etorri guregana lasai, eta konpunduko gara!



**BAZKIDIE TXARTEEA**

5.000 PEZETA URTE OSORAKO



Izena: \_\_\_\_\_  
 1. Abizena: \_\_\_\_\_  
 2. Abizena: \_\_\_\_\_  
 Helbidea: \_\_\_\_\_  
 Herria: \_\_\_\_\_  
 Tfnoa: \_\_\_\_\_  
 Kontu Korrontea (20 digito): \_\_\_\_\_

**430**

**bazkide ditu Noaualk.  
Zu ere egin zaitez  
bazkide**

# Proba ezazu herriko sagardo berria!




## ARÆETA



Zubieta, Tlf: 943 36 20 49  
Egunero txotxeko sagardoa dastatzeko aukera.

## iLLUNBE



Txokoalde, Tlf: 943 37 16 49  
Sagardotegi eta jatetxeko menua egunero.

## iRUIN




Zubieta, Tlf: 943 36 12 29  
Eguerdietan irekita eta igandeetan itxita.

## SÆIZAR



Kalezar, Tlf: 943 36 22 28  
Igande gauetan eta astelehen eguerdian itxita

## URDAIRA



Aginaga, Tlf: 943 37 26 91  
Igande gauetan itxita.

## AGINAGA



Aginaga, Tlf: 943 36 67 10  
Etxeko sagardoa dastagai urte osoan.